Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Albizu Basterretxea Pastorie

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1930-2016)



Aurkibidea

Biografia



1930ean jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Mauma auzoko Irudieta “Aixenbeko” baserrian, baina 19 urtegaz Gernika-Lumoko Arana auzoko Etxeandira joan zen eta bertan bizi izan zen ordudanik. Bost anai-arrebatatik hirugarrena. Aita Maumakoa bertakoa zuen eta ama Ibarruriko Trupittekoa. 12 urtera arte Maumako eskolara joan zen; Lekeition artzain zebilela ere klase partikularretara joaten zen bertan. Beti aritu izan zen artzain beharretan bere familiako tradizioari jarraituz. 1960tik 1968ra arte Kalifornian ibili zen artzain. 1969an Dalian hasi zen lanean eta 24 urte egin zituen bertan, erretiroa hartu arte. Jubilatu arte Etxeandibarrin ganadua izan zutenez, beti egon izan zen baserriko beharrei lotuta. Kortezubiko Parlamente baserriko Pakita Goitiagaz ezkondu ostean bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

GER-003

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-02-09
- **Iraupena**: 155 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hiru maistra eskolan

- **Erref**: GER-003/003
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:04:38. **Bukatu**: 00:06:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Hamabi urtera arte eskolan ibili zen. Hiru maistra izan zituen: Anixita Ondabeitia, izena gogoan ez duen erdaldun bat eta Klara muxikarra.

2. Eskolako ibilerak

- **Erref**: GER-003/004
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:06:04. **Bukatu**: 00:07:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Eskolara zein auzotakoak batzen ziren kontatzen du. Neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Ia kilometro bi egiten zituen oinez. Amak bazkaria ekartzen zien hiru semetxoei.

3. Dotrina eta arrosarioa euskaraz

- **Erref**: GER-003/005
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:07:57. **Bukatu**: 00:10:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Don Jesus Aldekoa apaiza izan zuten, gogorra. Dotrina eta arrosarioa euskaraz erakusten zizkien. Iluntzean eskolatik irtenda joaten ziren.

4. Mauma auzoko apaizak

- **Erref**: GER-003/006
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:10:41. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Mauman bi apaiz egoten ziren: Don Rikardo, Maumako abadetxean bizi zena, eta Don Jesus Aldekoa, kendu zuten baten partez etorri zena.

5. Etxean egindako pilotekin jolasean

- **Erref**: GER-003/007
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:12:02. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasa. Banderaka (zotz batekin), kubike (ezkutaketan), pilotan... Hariz etxean egindako pilotak erabiltzen zituzten. Pasaka, binan-binan... aritzen ziren.

6. Dultzainero eta danbolinjoleak erromerietan

- **Erref**: GER-003/008
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:16:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Mauman San Lorentzo jaietan erromeria debekatu egin zuen apaiz batek eta Garaira joan ziren gazteak erromeria egitera. Elorrioko Larrinaga dultzaineroa egoten zen erromeria alaitzen eta Muxikako Ordorikakoak izaten ziren dabolinjoleak. Garaitik zuriz jantzita eta gerriko gorriarekin etortzen ziren mutilak.

7. Gerrako oroitzapenak: hegazkinak, soldaduak eta senideak

- **Erref**: GER-003/010
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:18:28. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerrako kontuak. Hegazkinak hirunaka nola etortzen ziren Gasteiztik Gernikara oroitzen du. Abadiñotik etorritako senideak izan zituzten etxean hiru astez. Soldaduak orokorrean ondo portatu omen ziren beraiekin baina senideek ekarritako astoa eraman zieten. Geroago berreskuratu egin zuten.

8. Aita eta bera artzai

- **Erref**: GER-003/011
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:21:20. **Bukatu**: 00:23:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Aitak hirurehun ardi izaten zituen. Morroia, zaldia eta txakurrarekin Santo Domingoraino joanda dago bere aita ardiekin negua pasatzera. Goizean artzai eta ondoren eskola partikularretan ibili zen urte batzuez Lekeition. Urtean hiru hilabete pasatzen zituen han, urtarriletik martxora.

9. Artzain Ameriketan

- **Erref**: GER-003/012
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:23:27. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskal Herriarekin harremana

Laburpena:
1960an, hogeita hamar urterekin, Ameriketara joan zen, eta 1964an etorri zen bueltan, ezkontzera. Urte berean Ameriketara itzuli zen beste hiru urte eta erdirako. 1968an etxeratu zen. Hemen lan gutxi zegoen eta Ameriketan hiru urte eginda, etxe ona eros zitekeen Gernikan. Berak etxea egin eta lursaila erosi zuen.

10. Bizimodu ona Ameriketan

- **Erref**: GER-003/013
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:29:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:
Bakarrik joan zen Ameriketara. Hotel Españolera heldu zenean, euskaraz hartu zuten. Ugazaba etorri zenean, arrantxora eraman zuen. Leku ona izan omen zen, berogailu eta dutxa eta guzti.

11. Ameriketatik bueltan

- **Erref**: GER-003/014
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:29:53. **Bukatu**: 00:32:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

Laburpena:
Ameriketako ugazabak emaztea eta semea bertara eramatea proposatu zion, baina ezetz erabaki zuen. Ugazabarekin eta senideekin harremana jarraitu du eta bere etxean izan ziren.

12. Mendian baino, arrantxoan

- **Erref**: GER-003/016
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:34:47. **Bukatu**: 00:36:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:
Anaiarekin batera ibili zen Ameriketan. Mendira ez zen joaten, beti arrantxoan egoten ziren.

13. Ameriketako ardien probetxua

- **Erref**: GER-003/017
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:36:45. **Bukatu**: 00:38:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:
Ardi handiak izaten ziren Ameriketakoak. Artilea ere gehiago eta leunagoa izaten zuten. Zaku handietan eramaten zuten kamioietan. Bildotsetarako izaten ziren ardiak eta ez zieten esnerik kentzen.

14. Iloba ere Ameriketara artzain

- **Erref**: GER-003/018
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:38:41. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Hizkuntzak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:
Iloba eraman zuen Ameriketara eta ugazaba bertakoa hobe zela euskalduna baino aholkatu zion. Sute handi bat izan zen eta hesiak konpontzen ikasi zuen ingelesa.

15. Gernika ingurukoak Ameriketan

- **Erref**: GER-003/019
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:42:32. **Bukatu**: 00:43:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:
Gernikarrak asko ez baina ingurukoak asko joan ziren Ameriketara.

16. Etxekoekin gutunez Ameriketatik

- **Erref**: GER-003/021
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:44:37. **Bukatu**: 00:46:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskal Herriarekin harremana
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:
Ameriketan egon zenean, gutunez komunikatzen zen etxekoekin eta neska-lagunarekin. Semea hiru urterekin ezagutu zuen Sondikako aireportuan. Ardiekin ateratako argazkiak bidaltzen zizkion andregaiari.

17. Ameriketatik bueltan, Dalia lantegira

- **Erref**: GER-003/023
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:47:44. **Bukatu**: 00:48:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak

Laburpena:
Ameriketatik itzulita, Dalia lantegian hasi zen lanean. Erretiro ona duela dio.

18. Baserriko eta lantegiko lanak, batera

- **Erref**: GER-003/025
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:50:25. **Bukatu**: 00:52:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lantegira orduko, behiak jetzi eta jatekoa emanda eta prest lagatzen zituen. Goizeko lauetan jaikitzen zen. Jubilatu zenean, esne-behiak kendu zituen.

19. Esnea saltzen

- **Erref**: GER-003/026
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:52:11. **Bukatu**: 00:54:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Esnea saltzen zuen, hasieran Gernikako gaztandegira eta ondoren beraiek kudeatzen zuten. Hirurogeita bost urterekin kendu zituen abereak. Lehenengoan eskuz eta gero makinaz jezten zituzten behiak. Makina nori erosi zion aipatzen du.

20. Dalia lantegian salmenta handiak

- **Erref**: GER-003/027
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:54:43. **Bukatu**: 00:57:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak

Laburpena:
Dalia lantegian urte batzuetan salmenta handiak egiten zituzten, baita atzerrira ere. Alemaniak erosteari utzi zionean, beheraka hasi zen.

21. Dalia lantegia eta sindikatuak

- **Erref**: GER-003/028
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:57:11. **Bukatu**: 01:00:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Lehen lantegietan garrantzitsuena Astra zen Gernikan. Sindikatuak hasi berri ziren Dalian lanean hasi zenean eta berak ELAn eman zuen izena. Orduan izan ziren kaleratzeak aipatzen ditu.

22. Dalia lantegiko grebak

- **Erref**: GER-003/030
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 01:01:05. **Bukatu**: 01:03:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak

Laburpena:
Zortzi orduz gain, ordu extrak egiten zituzten Dalia lantegian. Lanean beherakada izandakoan, grebak egiten zituzten. Behin hamabi egun lantegi barruan eman zituzten. Beste hainbat ekimen ere egin zituzten.

23. Emakumeen egoera Dalia lantegian

- **Erref**: GER-003/032
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 01:05:38. **Bukatu**: 01:08:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Dalian hasi zenerako, emakumeak ere bazebiltzan lantegian lanean. Emakume baten kontua aipatzen du. Emakume eta gizonen artean soldata desberdintasuna izaten zen. Zilarra eta aluminioa erabiltzen zituzten lanerako.

24. Mauma auzoko gertaerak gerra garaian

- **Erref**: GER-003/033
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:08:29. **Bukatu**: 01:11:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Durangoko bonbardaketarekin ez da akordatzen baina Gernikakoarekin bai. Lehenengo milizianoak eta ondoren erreketeak pasatu ziren beraien etxetik. Frentea non egon zen kontatzen du. Mauma auzoko hiru gizon afusilatzera eraman zituzten baina barkatu egin zieten eta etxera bidali zituzten bueltan.

25. Gerraosteko murrizketa eta debekuak janariarekin

- **Erref**: GER-003/034
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 01:11:16. **Bukatu**: 01:14:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra garaian goserik ez zuten pasatu baina irin eske etortzen zitzaien jendea urrutitik. Txerririk hiltzen ere ez zieten uzten eta garia eta laboreak entregatu egin behar izaten zituzten. Lehengusuaren errotara joaten ziren, denak gauez. Markinatik asto-ilarak etortzen ziren Oizetik behera.

26. Errazionamendua eta estraperloan ibili beharra

- **Erref**: GER-003/035
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:14:06. **Bukatu**: 01:16:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamendurako kartilla edukitzen zuten: olioa, azukrea... hartzen zituzten. Non banatzen zuten kontatzen du. Azokara saltzera joaten ziren baserritarrek hainbat salgai ezkutatu egin behar izaten zituzten, zaindariek ez harrapatzeko.

27. Aita estraperloan bildotsekin

- **Erref**: GER-003/036
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 01:16:22. **Bukatu**: 01:19:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Estraperloan ibiltzen ziren batzuk. Beren aitak bildotsak gauez Bermeora eraman zituela gogoratzen du. Anekdota pare bat kontatzen du.

28. Fermina emagina

- **Erref**: GER-003/037
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 01:19:28. **Bukatu**: 01:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Igorreko aguazila, Leon Aldai, gizon ona omen zen. Mauman ere emagin bat izan zen, Fermina, eta nor zen azaltzen du. Pasadizo bat kontatzen du.

29. Don Juan medikua

- **Erref**: GER-003/038
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 01:22:10. **Bukatu**: 01:26:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Maumako medikua Don Juan izeneko bat zen. Anekdota bat kontatzen du. Bere arrebari apendizeagatik ebakuntza nola egin zioten kontatzen du.

30. Gernikako hiltegia

- **Erref**: GER-003/041
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 01:30:22. **Bukatu**: 01:32:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Gernikako hiltegia non zegoen aipatzen du. Herriarena zela uste du. Harakin askorekin izan du tratua. Izenak aipatzen ditu.

31. Idiekin gertatutakoa

- **Erref**: GER-003/043
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:34:46. **Bukatu**: 01:37:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Idiak Aixenbekon beti izaten ziren. Idiekin nola moldatzen ziren kontatzen du. Pasadizo bat kontatzen du.

32. Garoa saldu baina dirurik ez

- **Erref**: GER-003/044
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:37:20. **Bukatu**: 01:38:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Garoa saltzen zuten baina ez zuen dirurik ematen. Ortuetan erabiltzen zen. Gurdikadak eramaten zituzten. Anekdota bat kontatzen du.

33. Idi-probetan animaliei tratu txarra

- **Erref**: GER-003/045
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 01:38:48. **Bukatu**: 01:42:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Idi-probak ikustea gogoko zuen. Inguruko herrietatik zeintzuk ibiltzen ziren kontatzen du. Etxerako eta probetarako ez zen alde handirik izaten perretan baina zaintzeko moduan bai. Probetarako mozkortu ere egiten zituzten idiak.

34. Uztarrigilea Berriatuan

- **Erref**: GER-003/046
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:42:40. **Bukatu**: 01:43:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Uztarriak egiten Berriatuan egoten zen bat. Ez ziren garestiak izaten eta normalki baserritarrak berak eramaten zuen materiala.

35. Gernikako tindategiak

- **Erref**: GER-003/048
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:46:55. **Bukatu**: 01:48:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Trajearekin ezkondu zen. Emaztea ere jantzi dotoreekin ezkondu zen baina ez zuriz. Doluak bi urte inguru irauten zuen. Gernikan tindategiak non zeuden kontatzen du.

36. Gernikako tabernak

- **Erref**: GER-003/049
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:48:48. **Bukatu**: 01:52:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Gernikan 40. hamarkadan zeuden tabernak izendatzen ditu. Anekdota bat kontatzen du.

37. Neska-laguntzen bizikletaz

- **Erref**: GER-003/051
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 01:53:50. **Bukatu**: 01:55:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Emaztea Gernikako pasealekuko erromerian ezagutu zuen. Neska-laguntzen bizikletaz ibiltzen zen. Hiru anaientzat bizikleta bakarra zeukaten etxean.

38. Lurgorriko jaiak

- **Erref**: GER-003/052
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 01:55:06. **Bukatu**: 01:58:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Urriko azken astelehenean, erromeriaz gain, idi-probak egiten ziren. Non zegoen kontatzen du. San Roke jaiak. Lurgorriko jaietan asto-lasterketak izaten ziren, txokor batzeak, zakua bizkarrean hartuta lasterketan...

39. Baserritarrak harizko frakekin

- **Erref**: GER-003/053
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:58:04. **Bukatu**: 01:59:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Baserritarrari janzkeran nabaritzen zitzaion ez zela kaletarra. Harizko frakekin ibiltzen ziren. Bere amak kanporako josten zuen.

40. Totorikaguena denda

- **Erref**: GER-003/054
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 01:59:30. **Bukatu**: 02:02:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Totorikaguena hasieran denda txikia zen baina handituz joan zen. Beste dendatxo bat non zegoen aipatzen du. Makina bat dantza egin eta ikusitakoa da.

41. Morroi bi etxean

- **Erref**: GER-003/057
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 02:06:56. **Bukatu**: 02:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Morroi bi izaten zituzten etxean, bata arditarako, bestea etxerako. Aita gogorra zen. Morroi bat ihesi joan zitzaion eta ez zen bueltatu.

42. Fraidea gazta bila

- **Erref**: GER-003/058
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 02:08:35. **Bukatu**: 02:09:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Forutik Oizera gazta bila etortzen zen fraidearen kontu barregarria kontatzen du.

43. Aitak egindako abarkekin

- **Erref**: GER-003/059
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 02:09:59. **Bukatu**: 02:11:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Abarkak eta etxean egindako galtzerdiak erabiltzen zituzten. Aitak larruarekin egindako abarkak, lehorretan labanak eta bustitakoan gogorrak izaten omen ziren. Nola egiten zituen kontatzen du.

44. Ama birjinaren ipuina eta sorginen desagertzea

- **Erref**: GER-003/061
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 02:13:18. **Bukatu**: 02:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Amak tarteka ipuinen bat kontatzen zien. Gogoan duen bat kontatzen du, ama birjinarena. Lehen sorginak irtetzen omen ziren baina pistolaren ondorioz galdu omen ziren denak. Bere aititak lapur batzuekin izandako komeriak kontatzen ditu.

45. Azeriak galdu zirenekoa

- **Erref**: GER-003/062
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 02:17:40. **Bukatu**: 02:18:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:
Bere aita gaztea zela, sute handiak izan omen ziren eta orduan galdu omen ziren azeri asko. Txakur galduren batzuek erasoren bat egin izan zieten ardiei.

46. Etxe inguruko baserriak

- **Erref**: GER-003/064
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 02:19:50. **Bukatu**: 02:21:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Etxe inguruko baserriak izendatzen ditu.

47. Oizen elurragatik gertatutako isptripuak

- **Erref**: GER-003/066
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 02:21:46. **Bukatu**: 02:25:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Ardiekin Oizen zebiltzala, elurrak harrapatu zituen aita-seme batzuk. Semea gaixotu eta beste lau gizonek batu zituzten ardi haiek etxera. Oizen elurpean 18 ordu luzetan egondako mutila zatzetan sartu zuten berotzeko eta ondo irten zen.

48. Oizen eta Lekeition ardiekin

- **Erref**: GER-003/067
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 02:25:04. **Bukatu**: 02:26:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiekin Lekeitiora joaten ziren abenduaren 1ean eta apirilaren azkenera arte egoten ziren. Lainoagatik ardiak topatu ezinda ibili izan zen Oizen.

49. Berorika apaizari, Gernikan lagunekin eta tabernan hika

- **Erref**: GER-003/068
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 02:26:06. **Bukatu**: 02:28:13

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Apaizari berorika egin behar izaten zitzaion Mauman, bestela, zartakoren bat jasotzen zuten eta. Gernikako apaizarekin itsu bati gertatutakoa kontatzen du. Lagunekin eta tabernan egin izan du hika. Etxean ez zuen asko egiten.

50. Maumako eta inguruko hizkerak

- **Erref**: GER-003/069
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 02:28:13. **Bukatu**: 02:29:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Inguruko hizkerak desberditzen direla dio. Berak Maumako hizkera duela dio.

51. Santa Ageda koplak

- **Erref**: GER-003/070
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 02:29:22. **Bukatu**: 02:31:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Santa Agedatan etxerik etxe ibilitakoa da. "Abestu daiogun Agate deuna..." kopla abesten du. Umetan "basatoste" egiten zuten, txitxiburduntzia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com